

# ANAITASUNA

BIZKAIA

175 zenb. 1969, urrilak 30  
Apartado 17 \* GALDAKANO

## \* ta ekin batasunaz!

berbeta  
batua



izketa  
bateratua

mintzalra bat + euskera bat + eleketa bat

Guztiok dakigu ze problema dan euskaldunentzat, Euskera bat ez egotea leku guztietan. Bizkaitar ta giputzak alkar ulertu ezinik ibiltzen gara sarritan; ta irakurteko bere, hainbeste oztopo aurkitzen dogu. Euskerea batu egin beharko litzake, ta honela guztiok obeto adituko geunke alkar.

Pentsa daigun bestetik, zein gauza tristea dan Bilboko mutil batek edo neska batek (honelakorik bere, asko ba dago ta, Jainkoari esker!), Euskera ikasteko hainbeste neke ta buruko min eginda gero, Donostiara joan eta hango mutil edo neska euskaldun barri batekin ezin aditutea! Eta bitzuk hainbeste ahalegin eginda, izkuntza bera ikasteko!

Abenduan, idazle batzuek Baionan batuko dira, zein Euskera artu erabagiteko. Aurrerantzean, liburuak egitean, preferentzia emongo jako han erabagitakoari.

Ta zelangoa izango da Euskera hori? Nongoa? Hauxe da edozeinek itaundu\* leikena, ta arrazoi osoaz. Erantzun baino lehen, nik neuk hauxe azaldu edo argitu nahi neuke: batasun hori, idatzia, eskriturarako bakarrik egingo dala, ez jendeari horrela berba eragiteko, ezta antzekorik berel Bakoitzak egin daijala gura dauan moduan edo bere erriko usadioan, ze demontre! Baina —ta hauxe bai dala inportantea— Euskera batu hau ulertzen ikasi beharko geunke guztiok, honela beste alde urrunetako euskaldunekin ondo aditzeke eta liburuak irakurteko.

Esan geinke, Euskerea basoko zuhaitz edo arbola bat dala, inoiz zaindu ta jagon ez doguna, ta denboreaz abar ta kima antzu larregi sortu jakozala, arboleari indarra kentzen deitsoenak. Baserritarrak ba daki, arbola batek frutu ona emon daien, larregizko kimak moztu behar jakozala, inausi\* egin behar dala zuhaitz hori, geratzen diranak

indartsuago eta frutukorrango izan daitezcan.

Holako ebaketa egiteko sasoia eldu jako Euskereari bere, mingarria baina preminazkoa. Biziena\* daukan bateri, min egiten jako operazinoa egitean; baina bizia salbatzeko egin behar jako, duda bage\*.

Euskera batu honetan, gauza larregiak kenduko dira, preminazkoenak itxita. Bizkaiko itzak edo berbak bere, ugari ta oparo sartuko dira Euskera horretan, Bizkaiko Euskerea jatorrenetarikoa eta ederrenetarikoa dalako, askok honela pentsatu ez arren. Esateko moduari begiratuta, Bizkaian askoz bere obeto berba egiten dogu Gipuzkoan baino, nahiz ta gure berbak, batzuetan, latzago edo moztzagoak izan.

Gauzarik printzipalenak, orainarte legez segiduko dabe; beraz\*, ez ikaratu, hain gatxa ez da izango ta. Hala ta bere, dirudianez, aditza edo berboa aldatu egingo da goi mailako liburuetarako, Bizkaikoa ta Gipuzkoakoa barik, Nafarroakoa artuaz, hangoa, jakitunak dinoenetik, danetarik aberatsena ta jatorrena dalako; ta Bizkaikoarekin antz andia dauka, gainera.

Esate baterako: Bizkaiko "esan deusut", honelaxe izango litzake: "esan derautzut"; edo "zuk ekarri deustazu", modu honetaraxe: "zuk ekarri derautazu".

Ikusten dozuenez, ez da beste munduko kanbioa, ta erraz\* aditu leiteke halako bat, are Gipuzkoako Euskera bera baino errazago, beharbada.

Beraz\*, euki abegi ona Euskera barri honengana; ta inok kontra esan arren, ez uste Euskera batu hau gehiagoko barik artuten danik ta gutxi pentsatuta, operazino honetan ahalik eta kontu gehien artuta baino.

Xabier Kintana

## Gernika

### Umeen jai

Igaz, gazte talde batek eratuta, umeen jai berezi bat egin zan Gernikan. Jaiaren ederra ikusirik, gurasoak euren kontura artu eben urrengo urteko umeen ardurea. Holan gurasoak babestuta, gazteak organizatu ahal izan dabe, urrileko lehenengo domekan, umeen eguna. Eta izan be, umeen benetako okupazioa izan zan: erri guztia izan zan umeena, eta erri guztia egon zan egun guztian umeei begira.

Lehenengo, kale guztietan zehar, txistulari ta dantzari jantzitako ume guztien kale-jirea. Ondoren, danen artean ikusgarrizko alardea, dantzari ta txistulariena. Eguerdian, binan eta irunan, etxeetan banandu ziran bazkaltzeko, Euskal erri guztitik Gernikara egun horretan milatik gora etorritako umeak, euskaldun guztien batasuna ta anaitasuna egiteko bide eder baten. Arratsaldean, erria lau aldetan bananduta, barriro ekin eutsoen gure gimnasta gazteak, jendearen adurrak egiten.

Azkenik, danak batera agur egin eutsen Gernikari eta bertan batu zan jendea. Hainbat kostatuta egin dala esan behar, jai hau. Baina umeak urrengo urterarte agur egin eben. Zegaitik ez biharrarte, eta betiko biharrarte? Eskoletan gimnasia ta gorputzaren ejerzizioak erakusten dira edo behar dira; zegaitik ez folklorea? Holan egunero ikusiko geunkez etxe guztietako ume guztiak dantzan eta folklore mugimentu\* ritmiko horreek egiten, euren gorputzak azten diran bitartean. Gure geroa umeak egingo badabe, zegaitik ez guk gurasook eta erriko agintariak eurakan enpeinu gehiago ipini?

Gernikan askok txalotzen ebezan umeak, ez eskuakaz, bihotzagaz eta begiakaz baino, hainbat painelu ikusten baitziran\* begietan. Horrek nonberari zer edo zer falta jakola esan gura dau, bestela ez da negarrik egiten. Falta jakun zerbait sekulakoetatik sekulakoetara ikusten dogula. Ikasi egin behar dogu zer falta jakun, eta utsuneak bete. Gure folklorea benetakoa izateko, danok bizi behar dogu, baina oso osorik. Erri analfabeto bat gara. Ez dakigu euskeraz, geure berbetan, ez leiduten ez idazten; eta hau da, berbeta, folklorerik biziena, erriaren ari-mearen erakuslea, beronek egiten ditualako beste guztiak; hau barik, beste guztiak edozein pintura batek daukan bizitasuna dauke: paperekoa. Zegaitik ez, ba, bideak daukaguz eta, ikasten asi? Edadeak ez dauka inportantziarik; zenbat zaharrrago, obligazio aundiago eta exenplo ederrago. Eta gero gure ume guztiak euskeraz azi ta ezi\*, dantza ta folklore ritmo guztiak euri erakutsi.

Hau da Gernikako umeen jaiaren erakutsia. Ikasiko ote\* dogu? Eta ikusi ahal izango ote doguz ho-

lako jaiak ugariago eta nonnahi, ez negarrez, pozez baino!

## Nabarniz

Ba dago lokal bat. Erriaren languntasunagaz barrizatua. Erriarena dan ezker, erriari tokatu be barrizatze hori. Erriaren ez dago konferentzia bat non emon. Baserriari dago kiozan ardura ta gorabeherak non sustertu. Umetxuei euskeraz non irakatsi. Ta erriak atondutako lokaltxua, abadearen garaje bihurtuta dago. Uste dogu, erritarrok ba daukagula eskubide bat, zerbait eskatzeko ta esijitzeko. Lokal honetan ez dago argirik be, baina ez da hain gatxa hori ipintea. Garaje izatekotan ez zan berrizatu behinik behin.

*Nabarniztarra*

## Axuria

Baserri arazoetan alkartuteak dakan onurakaz\* konturatuta, eta progresuaren aurrerapen guztiakaz jabetu nahirik, Axuriko bost baserriar lotu dira, baserri edo lur kooperatiba bat aurrera eroateko. Udan urte bete pasatu da, obrak asi zirala, eta martxan jarrita dagoz. Gure eskualdean\* lehena dogu. Ilusino itzalagaz lan egiten dabe; eta nahizta eragozpen aundiak izan sarritan gehien lagundu behar leukeena-kandik, aurrera doaz optimismo agiri bategaz. Korteari begiratutea baino ez dago: zelako ganaduak eta zelako tokial! Eta aurrera zuzen jozteko, hara oztopoa: Argia daukagu eskax-eskaxa Axurian; eta justuan daukagun horixe be, kendu nahi deuskue. Ez dago eskubiderik!

## Arratia

A. Landajuclari dei egitera gatoz. Txori pozgarria izan zara zu Arratiarrentzat. Polito astinduten zenduzan ANAITASUNA-n gure erriko txokoak, eta aldizkari hau zabaltzen be ahalegina egiten zenduan. Orain, zer? Guk pentsatzen dogu, H letreak eta beste lege batzuek otzitu egin zaituela. Baina euskereak ez dauka errurik, eta zure behar aundia daukagu zure erritarrok. Penagarria izango litzake, H ziztrinagaitik zu mutututea. Guk esan beharrik ez daukazu, eta barkatu\*; baina zer edo zer egin ahal dauan gizonak, isil ta geldi egoteagaz, pekatu egin leike.

Apurtu, mesedez, isiltasun hori euskerearen onagaitik. Agertu gure erria. Indartu ANAITASUNA. Ez gaizuz itxi zure laguntza barik; eta, azkenez, mila ta mila esker, A. Landajuclari jauna.

*Lau Gaztek*

## Markina

### Bai, monjei txalol

Aurrerakada ederra, Mertzede ko monjen ikastetxeak emon dauana: Batxilerreko lehenengo iru urteetan, neskato guztiak asteen euskerazko ikastaldi bi izango ditue, dakienak eta ez dakienak maila bitan bananduta. Beste ikasgaien mailea, ofizialki.

Orainarte, Elizearen irakas-erakundeak, eskola ta kolejio, gure erriaren, tamalez, giza-eskubideen eta Elizearen erakutsien kontra jokatu dabe, ta horretan jarraitzen dabe oraindino gehienak. Jakina, asmo txarrik barik eta borondaterik onenagaz gehienetan.

Zuzentze baten asierea ote da hau?

Gauza bi jarri gura geunkez argi: Beste ikastetxeentzako eredu ta jarraibide ederra dogula Markinako Mertzedetarren jokaera hau. Oraindino, hori lehenengo pausua baino ez dala. Horretan geratzea erdi uts litzake.

### «Zerutxu» ikastolea

Orainarte, ikastolako umeak toki egokirik ez dabe izan. Halan bere, arduradunak eta «ZERUTXU» alkar-tekoak aurrera egin dabe, kikildu barik, bitarte larri hau ahal izan daben moduan igaroaz. Orain, aldi o-beak etorriko ote diran gagoz.

Laster toki zoragarria izango dabe umetxoak. Karmeldarren komentuan, amaitu antz dira obrak. Azkenengo apaingarri ta ikututxoak emoten dabilte. Markinak zelako ilusino ta ametsak\* jarri dituan ikastola honetan!

Lan hau aurrera eroateko, paper zaharren kanpaina bat eratu da erriaren, eta erritarrok inok uste baino obeto erantzun dabe. Ikastoleak ondo ordainduko deutso Markinari, egin dauan ahalegin hau.

*Irukote*

## DURANGO

### Euskal Liburu ta Diskoen Azoka

**GUEREDIAGA** elkarteak antolatuta, datorren Zemendilaren lehenengo eta bigarren egunean. Durango Andra Mariko ellizpean, Euskal Liburu ta Diskoen lau-garren azoka izango da.



## Gure uste-izatea

Ikusi dogu gizonari buruzko uste-izate geldikorra, historitasun bakoa eta indibidualista. Baina orain gizona historitasun baten barruan ikusten badogu, bere bizitza ta historiaren egile ta jabe, eta bere ekin-tza guztien ondoren bezala\* begiratzan badogu, orduan kulturea be gizona berbera lez agertuko da, historitasunez gainezka, gizadiaren\* ibilera osoaren parte bezala, eta gizonak naturalezea ta gizartea\* bera menperatu ta erabarritzen darabilen jokoa lotuta. Kulturea, orduan, ez da holako absoluto bat: izpiritua-ren\* agerpena (idealismoarentzat), edo kontzientziatik kanpoko errealdadearen erreleju uts bat (materialista zaharrentzat). Kulturea, orduan, gizonak naturaleza ta historiaren dituan artuemon eta eraginararen jokabide osoaren zati edo alderdi bat da.

Hemendixek asita egiten deusagu kritika bat espontaneismoari eta zentzu\* komunaren filosofiari.

Orduan kulturea, zerbait "azaldu-takoa" edo, gehienez be, kondairan zehar agerturikoa izan beharrean, gizonak sortutako zerbait da; eta kondairan zehar aberastutakoa. Horretara, kulturea egiten dabenak, kondairea bera egiten daben berberak dira: hau da, giza-klaseak.

## Kulturearen eta giza-klaseen jerarkia

Esan dogunetik igarten da, ta aha-lerin aundi barik, dana dalako une bateko kulturarik indartsuena, giza-klaserik indartsuenarena dala. Kultura ezbardinak egoteak, munduaz eta gizonetaz uste-izate ezbardinak egoteak, begien bistan ipinten deuskuz giza-klase diferentek, eta euren-erik batek ez dauala bestea, klase bezala\*, isiltzerik lortu; baina kulturarik indartsuena, klaserik indartsuenari dagokiona izango da.

Entzun daigun Karlos Marx-ek di-noskuna: "Sasoi bakoitzean klaserik indartsuenaren ideiak izaten dira entzunenak; hau da, tresna-indarrez klaserik aberatsena izango da era berean buru-indarrez be indartsue-na. Tresnagintza guztiak kontrola-tzen dituan klaseak, era berean kontrolatuko ditu ideia-sortzeak bere. Holan ba, burubideen jabe ez diran-ak; gehienbat, klaserik indartsue-naren buru-ideiekin jantzita ibiliko dira. Burubiderik indartsuenak, tresnagintzako artuemonen jabeen ide-ien agerpen bat baino ez dira; eta beraz\*, klase bat bestearen gaineti-koa egiten daben artuemonen ager-kundea dira; bere nagusitasunaren ideiak dira. Klaserik nagusienaren barruko diran gizonak, beste gauza batzuen artean, kontzientzia bat dau-ke, ta horrexegaitik pentsatu egiten dabe. Klase bezala nagusitasun bat dauken ezkerro, eta sasoi beteri euren burpiladea\* alderdi guztietatik emoten deitsoen ezkerro, dudarik ez dago, ezer itxi barik, dan dana do-minatzen dabela; beraz\*, pentsalarik lez be, nagusitasun bat dauke, ideien sortzaile bezala, eta euren sasoi ho-

netako ideien sorkunde ta banatzea taxutu\* ta erutzen dabe. Honan ba, euren ideiak dira sasoi bateko ideia-rik nagusienak" (*Ideologia Alema-na*, 25 gn. orri.).

Marx-ek berak dinoanez, sasoi ba-ten nagusi diran ideiak euren sor-tzaileakandik banatzen badoguz, hau da, klaserik nagusienagandik bereiz-ten\* badoguz, guzurruez eta erra-kuntzaz pentsatuko dogu, ideiak, gi-zonakandik aparte, zerbait dirala; eta, gainera, gizonen etorkizuna gi-datu ta zuzendu egiten dabela. Marx-ek errakuntza hori filosofila-riei ahurpegiara\* botatzen deutse. Filosofilari horreek luzaroan sines-tu izan dabe, nahikoa dala errakun-tza edota injustizia bat ideia aldetik kritikatzera, errakuntza edo injusti-zia hori bat batera eta beste barik baztertzeko.

Filosofilariak, mundua esplikatu, esplikatzen deuskue; baina horrez gainera, mundua erabarritu egin behar da.

Ideologiaren aldetiko kritikea edo-ta arrazoiaren ahalegin utsak ez dira nahiko, gure erri barruan kul-tura demokratiar bat ezarri ta in-dartzeko. Guk indartu ta erabarritu gura dogun kultura honek, tresna-bideen indarretan sustraitu behar-ko dau; giza-klase baten benetako kontzientzia egin beharko da, eta gero honek, giza-klase honek, poli-tikearen plazan nagusigoaz\* jabtze-ko burrukatu.

## Giza-klase baten nagusigoaren oinarriak

Orain ardura deuskuna, hauxe da: non datza\* giza-klase batek beste-ari gehiago egitea? Erantzuna, gi-zadiaren kondaireari begira egin-dako azterketeari jarraituaz, hauxe da: Nagusigo\* hori, zenbat eta pro-duzino-bide gehiago bere kontuan eukitean datza.\* Beharbada, premi-nazkoa izango da orain esandako hau obetoago azaltzea. Hori zehatz-mehatz egitea, oso lan zaila\* izango litzake; dana dala, zertxobait esango dogu. Ohar\* gisa\* esan behar dogu, gizona lana egin beharrean aurkitu dala beti, bai pentsatu ahal izateko eta baita otoitz egiteko bere. Hau da, gizonaren eginbeharrak berariz-koena\* bere kautan jarri eta pen-tsatzera edota otoitz egitea dala uste badogu be, gizonak bizi egin be-harko dau lehenengo; hau da, jan egin behar dau, bizileku bat mol-datu eta abar. Ta horretarako lan egin behar da; naturalezatik bizi ahal izateko preminazkoak diran gauza guztiak jaritxi\* behar dira. Eta holaxe, gizonak produzinarako erabilten dituan tresna guztiei (gi-zonaren indarra barruko dala), guz-ti horrerik produzino-bideak deitzen deusagu.

Gizon batek edota giza-klase oso batek produzinarako bideak bere eskutik eta bere kontura dituanen, bere esku-izate horrek beste gizon klaseenganako nagusigo\* bat emo-ten deutso. Honetantxe datza\* gizon klase batek beste bat menderatzea. Esta mendeko klase guztiak ahal diran modu guztietara burrukatu beharko dabe, produzinarako bide horreetan benetako parte izaten, ho-rixe baita\* bide bakarra, giza-klaseak indarra izateko, euren euren-a dan kulturearen nagusigoak jabetu-

sun bat euki daian.

Hemendik, ondoren legez dator, oso laguntasun merkea dakarrela, norbere klasearen debiltasun eko-nomiku ta politikua pozik antzean ikusten dabenak.

Teilagorri

## Bandera de Vizcaya, kalea

"Bluesville", "Flash", "Dnystore", eta abar. Horra hor Bilboko kale baten —Bandera de Vizcaya ka-lean— diran etxe batzuen izenbu-ruak. Bilboko kalerik modernuena izatekotan dago, "in" kale bat egi-tekotan. Orainsuen egindako etxea, "Dnystore" tabernea da. Berton li-buruak, errebistak, disko batzuek, modak... dagoz. Eta ormetan ikara-garrizko kartelak, Dana oso "pop".

"Ye-ye" antzeko ta ondo bizi dan gaztedi giroa somatzen da; baina dana bilbotarren estilora eginda. Neska "ikaragarriak" ikusten dira; batzuek asmatu ezineko jantziekin.

Bilbo gogaikarri honentzat eta diruz ondo dabilen jende horrentzat, paraje honek oso pozgarriak dira, kuriosidadea asetzeko behinik be-hin. Hantxe ikusi nituan jaun pro-fesore aundi bat, periodista gazte bat eta abar. Eta azken honekin, ez dot inor salatu nahi, egoera bat azaldu ez besterik.

Kale hori ikusteak, niri holako tristura bat emoten deutse. Hantxe gazte adiskide batzuekin berbetan egon nintzan: giro ustela, nobedade gose arina, sustrairik bako jendea, ebasinorako bidea. Nire adiskide batek, jende klase hori argi bonbi-lekin honparatzen dau: argi egiten dabe, nahizta barrutik utsik egon.

Baten batek guzti horrerik "burges ibilkerea" deituko leuskio. Nire us-tez, guzti hori aparra\* da, ikusten dana; baina problema sakonago ba-ten agerpena beti be: gaztedi kon-formatua, bizi baino lehen "krak" egina. Gaztedi honek nahi aina gauza lortu daikez —gauzak eta plazerrak— bere satisfazinorako; baina, satisfazino hori lortu beha-rrean, barrizaletasuna aunditu baino ez dabe egiten. Gizarte mota\* ho-neri, askok "janerako gizartea" edo "sociedad de consumo" deitu deu-tsoe.

Gizona pasivo bihurtzen da; edo-ta, ezetan parte artzen badau, aha-lerin gutxiarekin egiten dau, bapere pentsatu barik eta inok kanpotik agindutako erara.

Honako aldrebeskeriak gustatzen jakezanentzako, kalearen izena "Ban-dera de Vizcaya" da. Seinale bat? Bizkaia bide horretatik doa? Kale hori ote\* da gure ikurrina? Ez geunke gura, euskal kultureak bide hori artzea.

Andoni



## Balona

### Herria-ren milagarren alea

Urrilaren lehenengo astean argitaratu zan "HERRIA"-ren 1000-garren alea, "HERRIA", Baionan aterratzen daben astekari bat da. Zortzi orrialde daukaz. Zuzendaria, P. Lafitte Jauna da. Idazlaritzaaren buru, barriz, Larre Jauna. Eta diruzaintzailea André Ospital Jauna. Ikusten denez, iru gizonok oso ezagunak dira euskal eskritoreen artean.

## Larزابale

### Kantarien eguna

Oraindik oraintsu izan da Larزابale\* erritxoan euskal kantarien saio edo sariketa bat. Jende talde nahiko aundia batu zan bertan, kantatza zahar ta barriak entzuteko gosez.

Mattin ta Xalbador egon ziran bertsolari bezala,\* Garaztarrak\* dantzari ta Hazpandarrak\* soinuari. Banakako kantu zaharretan, Loiato agertu zan nagusi, Banakako kantu barrietan, Maite Idirin. Bikoteetan, Etxemendi ta Larralde. Irukotetan, Sarasola-Borda-Etxegoien.

## Angelu

### Parroko barri ta euskalduna

Laburdiko Angelu\* erri dotorerera parroko barria eldu danean, auskaldunentzat nahiko pozgarri izan da. Aspaldi batean egin ez dana, kantariak euskeraz abestu eben. Gero, barriz, trinketean parroko edo erretoe barria euskeraz mintzatu zan. Azkenez, angelutar batzuek eskatu dabe astean gutxienez meza bat euskeraz izan daitela.

*Lekubaso*

## Eibar

### Kale izenak

"Zeruko Argia" Eibarko barri emoiile dan Amatiño-ren idazkiak beti irakurten dodaz gogo onez, ze honek beti be agertzen dau Plaentxiako uren ikutua, bere esanguretan ziria agertuaz.

345-garren zenbakian ekarren kale izenezko zertzelada luze bat, eta ez arrazoi barik. Izan be, kale izenak ipinten arduratu diranak ez dira asko arduratu zelan eta zegaitik jakiten; eta lehendik euskal izena eukenak hala-hola ipini dira, euskerazko grafia eta erderazkoa nahastaturik. Hori bai, handik edo hemendik, gu beti kaltean.

Nok asmatu ote eban: Txirixoa Kalea, Calle de Chirio? Chirio ospetsua nor ote\* zan? Amatiñok jakingo dau bere nondikoa. Txoritxo mota\* bat ei zan Txirixoa, Eibarko eskopetak erriaren lur azaletik aspaldi uxatu ebena, gaur kanpo-larrosa etxe-kardo horreetarikoak eus-

kerea eta bere itxurea uxatu nahi daben legez, nonbait "Chirio eleison" kanta gurarik. Baina ilustrazio-zale horreek jakin behar leuke, Real Academia Española-k berak esaten dauala, izen propioak eta toki izenak, toki bereko izkuntzaz nahiz dialektuz gorde behar dirala, euren grafia ta guzti.

Baina, Amatiño erkidea,\* asko dira gure errian, legetik komeni jaken parteak bakarrik artzen dabenak. Eta barriz be, gure ziri puntok ondo zorroztu beharko doguz, gogo daukanak jakin daian zer zelan dan. Eta ba daukagu esatekorik asko.

*Portale*

## Bilbo

### Irugarren semea

Euskal abesti barrien arloan hain ezaguna dan Juan Manuel Ares-ek irugarren semea euki dau. Unai izena ipini deutsoe.

### Radio Popular

Bilboko Erri Irratiak programa barri bat asi dau ostiral arratsaldeetako 8-retan, "Gure Erria" izenarekin.

Irratiali horretan, gure erriko kultura ta folklorea erabiliko da, baita abesti barria bere, baina erderaz.

Hau ondo dago. Baina, noiz euskeraz? Bilboko emisora honek eta beste biak be, ez dauke urte osoan euskerazko programa bat bere.

Noizarte holan? Kontuan artu daiela, Bizkaian 300.000 euskaldun gagozala, ta atentzino gehiago mezezi dogula.

### Ereagako ondartzeta

Ereagako ondartzeta, Negurin, lohikeriaz beteta dago: untze ugerdun ola zatiak, botila kristalak, petroliozko ondakin piloak, eta holaokak.

Lehenengo egunean, kanpotar batekin joan nintzan hara. Berak ez eustan ezer esan, baina ni lotsatuta egon nintzan. Gure edertasunak erakutsi nahi izan neutsazan, eta hara zelango pitxiak ikusi zituan.

*Xabier Gereño*

## Ermua

### Erriko gaiak

Aspalditxo honetan, gure erria apurtxo bat txukuntzen ari\* dira. Horren preminia aundia egon da benetan, ze ikustea baino ez egoan zelan aurkitzen ziran gure kale ta enparantzak:\* zuloak alde batetik, eta ura bestetik. Ganbe-tiko bidea be, itxuraz ipini deuskue. Ikusiko dogu, ea Mallabiko bidea horretara itxuratzen daben.

## Kirolak

Gure errian, kirol aldetik, pelota jokoa izan da erriaren gogokoa. Baina orain, zorionerako edo txarrerako, futbolak betetzen ditu gure kirol guztiak. Baina guk hauxe itaundu\* gura dogu: Ermua D.D.-koak lehendik gareanok, eta ez futbolagaitik bakarrik, baita beste kirol eta erri kultureagaitik be arduratzen gareanok, berrehundaz peseta ordaindu behar doguz, bazkide izateko? Pelotazale, futbolzale baino gehiago gareanok, zer egin behar dogu? Sail honetan, argitasun apur bat eskatu gura geunskio goiko Batzarrari.

## Eriotzea

Oraintxe gutxi dala, larogei urte-gaz il da Bilbo aldean Agustina Salaberria. Goian bego! Bere familiari gure nahigabeko agurra.

*Aranberria*

## Yurreta

### Jaiak

Aurtengo jaiak dirala ta, Yurretako gazteak ez dira jai utsetan gelditu. Benetan be pausu jatorra aurrerantz emon dabe. Irailaren 28-an jaiet asiera emon eutseen Kofradia Egunagaz. Yurretako elizatea osotuten daben Kofradiak, honeexek dira: Orozketa, Santa Marina, San Fausto, Oromino, Goiuria eta Yurreta.

Hona hemen jaien egitaraua.\* Goizeko amar t'erdietan Barandiaran-en Mezea, erriak eta koraak lau abotsetara abestua. Ondoren, sei dantza talderen saioa, bakoitza bere Kofradiaren izenean. Bertsolari ta abeslari saioa Kofradiako seme diranakaz. Gero sokatira txapelketea, eta txorokil ta arrautzopil txapelketea.

Egitarau\* osoan, Kofradia bakoitzeko errepresentazioa egon zan. Egun honeri amaiera emoteko, han euki genduzan Bilboko "Oinarriak". Mutil jator honek, erromeria alai bat bidetu eben. Egun guztian benetako euskal giroa egon zan. Yurretak eta Durangok imigrante asko daukez (erdiak inguru). Jaiak bitarteko bat izan dira, honeei gure berezitasunak adierazoteko.

Baita esanbeharrekoa da, jai eratzailen artean; kanpotik etorritako batzuek egon dirala, eta benetako ardurez jaiak eratzen lan egin dabela.

Yurretako jaiak dirala ta, ez dogu oraindino dana azaldu, eta urrengo baten ekingo deusagu.

Zorionak lan egin daben guztiei eta aurrera!

*R. M. Artza*

## ELIZEAREN ITXAROPENA

Itxaropena! Elizea! Elizearen itxaropena! Elizan itxaropena?

Arrisku andiagorik! "Ez dago gehiago zeren bildur izanik, izan dai-teken okerrenarekin bakean gagoz eta. Itxaron eta burruka egin baino besterik ez daukagu", esan geinke Camus-ekin batera.

"Zetara zatoz gu nahastera?... An-ditzat, jainkotzat eukiko gaitue, ze guk euren (gizakien) gain ipiniak izan gaituenok, euren (gizakien) as-katasunaren erresponsable egiteko prest gagoz,... otzikaraz dardar era-giten dauan askatasun hori; azke-nean ezinezkoa litzakioe aske izatea. Zuri (Kristori) entzuten deusugula eta zure izenean agintzen deutsegula esango deutsegu. Gainera, guzurra esango deutsegu; izan be, ez deus-uguz gehiago sartzen itxiko" (Eli-zako Inkisidore andiak, *Karamazov Anaiak*, Dostoievski). "Kristinautasunaren etorrereagaz munduan za-baldu dan intolerantzia, bere ezau-garririk nabarmenatariko bat dogu" (Bernard Russell).

Aurreko itz horreek ez dira noski\*, gure itxaropena biztuko dabena. Hala ta be, bai, ba dogu Elizan itxaropen, Eliza barri batean, ildako Elizearen gain sortuko dan Elizan. Bitartean, ezin geinke amets\* an-dirik egin.

Zer egin? Lehenengo hauxe, entzun Bonhoeffer-ek dinoana: Elizea ez da munduaren makurkeriaren aurkako babesa, Jainkoa eta mun-duan oso-osorik konprometiduta da-goan gizakia alkartzeko tokia baino.

Zelan eldu horretara? Entzun barriro be Camus-eri: "Euren buru diranak, beste guztien izkuntzea erabi-ili eta beste guztien bizitza zaila biziko dabenean, orduan sinestuko\* dot Elizan".

Gaur ez gagoz noski\* txantxetan ibilteko. Gure burua zuritu guraz, mifa klasifikazino egin geinkez, kon-tenplazinoa dala ta ezjala, enkarna-zinoa dala ta ezjala. Bata bestearen

aurka gabiltzan bitartean, erabat\* oker gabiltz. San Agustinen "erri biak" eta San Inazio Loiolakoaren "ikurrin biak" ez dabe zentzurik\*, alkartzen ez diran artean. Jainko-Erria eta sekular-erria ez dira erri bi, bat baino. Askorentzat, sekular-erriak ez ei dauka eskatologia edo azken-aldi kutsurik\*. Horrelakoen arrazoiak ez gaitue betetzen. Esaten dabe: Jainko-Erria, Jainkoaren lana da; sekular-erria, barriz, azur-aragiz-ko gizakiena. Jainko-erriak, ukame-na\* eta damua eskatzen ei dau; sekular-erriak, ostera\*, habilitadea besterik ez. Jainko-Erria, historiaren gain ei dago; sekular-erria, barriz, mundu honetakoa bakarrik ei da.

Zer da, orduan, Jainko-Erria? Kristok, askotan agertu euskun bera zala Jainko-Erria. Harrezkero, ezin ezelan be zati bi egin Kristogaz; bat bakarra besterik ez, Jainkoaren in-iziatibea eta gizakien erantzuna. Kristo egiazko Jainko eta egiazko gizon aitortzeak\*, Erreinu bien ba-tasuna adierazoten deusku. Eta hori guztia ez bihar, gaur bertan baino. Izan be, zer da eskatologia? Bihar jazoko\* dana? Jadanik\* gertatua\*? Ez bata ez bestea. Gaur egiten edo gertatzen ari\* dana da. Jainkoaren Erreina, Jainkoarena izango da; baina, nahi ta nahi ez, geugan, giza-kiongan agertuko da; geu izango ga-ra Erreinu horren "sakramentuak".

Elizea, hori horrela dala jabetzen danean, orduan esan geinke, guran itxaropen bat bizitu dala. Eta hori horrela dala jabetu ez teoria utsean, munduaren bizikerea egingo dau-nean baino. Familietako konpromi-suak dirala, edo lantegietakoak, edo politikaren sofoan mugiltzen dala, eta beste hainbeste bide barri auke-ratzen\* dituanen, orduan izango dogu Elizan itxaropen. Gure aba-deak ezezik, gure gotzainak kartze-letan ikusten doguzanean, orduan izango dogu Eliza barri batean itxa-ropen. Bitartean...

Markox Amundarain

## Benetako Kristinautasuna

Mundu guztiko jakitunak eta ja-kintza arlo guztietan lan agiten da-benak, kristinau eliza guztietako teo-logoak, jokera politiku askotako gizonak, idazleak, kazetariak\*, ikas-leak: gizon guztiok bilduten\* dituan Alkarte batek karta bat bidaldu eu-tsen, joan dan udan Coire-n (Suizan) batu ziran Europako Gotzainei. Kar-ta honek Europako Eliza batek bere kristinautasun arloan daukazan gu-zurrei buruz diardu. Gutxi gorabe-hera hauxe dino (gauza batzuek jan, beste batzuek bigundu egin dodaz):

"Orain urte bi inguru, komunista erri baten protesta gogor bat egin eban gure gizarteak, erri horretan askatasunik ez egoalako, eta estadu sozialistetan gizonak daukazan es-kubideak onartu eta errespetatzen ez ziralako. Geuk be gaur protesta gogor bat egiten dogu, isilkeriazko Eliza baten aurka; hainbat gizon politika ta gizarte arloan askatasun barik ikusiaz, jaramonik egiten ez dauan Eliza baten aurka.

Protesta gogor bat egiten dogu Elizako goimailakoen, kardenalen eta gotzainen aurka, gizarteari egi-ten jakon kaltea onartzen ez daben abade batzuek alboratu eta euren aginduekin lotuten dituelako.

Dei gogor bat egiten deutsegu Eu-ropako gotzainei ta Aita Santuari, Eliza horretako egoera hau hainbat arinen amaitu daitela ta benetako kristinautasuna sortu dadila bertan, ez guzurrezkoa ta azpikeriaz betea. Eskatuten dogu batez be, gizarte barri bat egiteko asmoagaz euren bizia ta askatasuna emoten daben gotzain ta abadeak, onartuak izan daitezala.

Katolikuen protesta honegaz, bat egiten dabe gure anaiak diran kris-tinau protestanteak.

Munduko kristinau guztiei be dei bat egiten deutsegu, kristinau erle-jinoa gizon guztien erlejino egin daien, eta eurak bizi diran errietan ez daien inor baztertu, beste pen-tsakera bat daualako, odol nahiz azal ezbardina daualako, beste erle-jino bat daualako edo beste politika jokera bat daualako.

Uste dogu, Europako Gotzainen Batzar honek zer edo zer egingo dauala, guzurrezko kristinautasun hau aldatu daiten, eta Eliza Katoli-kuak egiazko kristinautasun bat agertu daian, erlejinoa gizon guz-tientzako baita\*, eta ez, orainarte leku askotan agertuten dan legez, gizon batzuen morroi."

Karta hau, 170 irakasle ta jaki-tunek izenpetu dabe.

Urgoiti



(Vida Nueva-tik)

### TXEKOSLOBAKIAN 15 ABAD

#### BARRIRO EKINTZAN

#### ESTALIN-EN DENBORAN GAIZTE-TSIAK IZAN ZIRAN

Erroma-ko eleizak eta Txekoslobakia-ko gobernamentuaren arteko artu-emonak egunetik egunera aldatuz doiaz.

Joan diran 50 urteotan aurrean erabi-liak, zigortuak, ta giltzaperatuak izan ziran katolikuei, orain beste arrera bat emoten jake. Garai batean neurri bako traidore legez, diru ondartzaila, erbesteko agintari-tzen espia legez ta ezarritako ordenaren nahaztutzaila legez kondenatuak izan ziran.

Eta orain demostratu izan da, juizio horretarako presentatu ziran dokumen-

### ESKUZ JAUNARTZEN

Uda honetan asita, Belgika-ko abadeak euren erriarrei gure jauna eskutik eskura emon ahal izango deutsee, Erroma-tik horretarako baimena artu ondoren; izan be, IX-garren gizaldira arte horretaraxe ohituten zan.

Ohitura hori Frantzitarrek bere eskatu dabe, eurak be gauza bera egin ahal izateko.

tuak edo guzurrezkoa edo manipulatua- ziral.

Ta, konkretuki, sei abade kondenatuak libertadean itxi diranean esan izan da: «Ez dabe subsibio-delitorik egin izan esta-utuaren kontra».



## JEAN DONEUX GURE ARTEAN

Iru aste igaro ditu Bizkaian, Belgikatik etorrita, Jean Doneux, izkuntzalari ta etnologo ospetsuak. Jean Doneux Lovainako Unibersidadeko irakaslea da, linguistikako irakaslea. Orain urte bi, Grenoble-ko Unibersidadean egon zan; eta lan itzala egin dau, Afrikako izkuntzak azaltzen batezberere. Hori dala ta, "Afrique et Langage"ko zuzendarien artean dago. Linguista bezala\*, Bloomfield-en osteko estrukturalismoari jarraitzen deutso. Lan bat baino gehiago egin dau, izkuntza batzuei buruz.

Guregana etorri zan joan dan irailaren\* 19-an, eta lehenengo batzarrean (han gengoan X. Peña, J. A. Etxebarria, L. Gandiaga, K. Rotaetxe irakasleok eta beste lagun batzuek), ea euskerearen estrukturalismoari buruz ezer ote\* geunkan itaundu\* euskun. Eta ezer eukitekotan, prest egoala guri laguntzeko; bestela opor egingo ebalu, Euskalerrria eza gutzen.

Pozarren onartu genduan batzuek haren asmoa; eta handik egun bira edo, Ondarroara joan zan bera, hango berbetea ikasteko. Ikasteko baino obeto esango neuke, hango berbetea aztertzeko, ze —berak esan euskunez— sarritan "izkuntzalariak ez dira poliglota", eta ikasi baino gehiago ikusi gura izaten dabe zelakoa dan toki bateko izkuntzea.

Beragaz egon naiz Ondarroan egun batzuetan, eta lanean ikusi dot; obeto esateko, alkarrekin behar egin genduan askotan. Benetan esan daiteke, haren formazioaz erraz\* ikusi leitekela izkuntza baten eukturea. Alde honetatik, miragarria da gizon honen preparazioa; eta beste eskola baten formatuta gagozan irakasleei, haren lan erraza eta batezberere zuzena ikusita gero, jakingura andia etorri jaku.

Ondarroan, nire ustez, inpakto pixka bat egin dau jakintsu honek, nahizta erritar gehienak ulertu ez zelakoa zan bere lana. Gehienak pentsatzen eben, euskeraz ikasteko etorri zala; eta noizean behin, horixe itaunduten\* eutsoen. Joxe Mari gure informadoreak behinik behin, ulertu eban zetarako zan eta ze balio eukan honelako lanak. Oso gauza pozgarria hauxe: azken egunean —gu oraindino bertara bihurtuko ginala ta— Ondarroako gramatika bat eskaini\* eutson Doneux Jaunari. Eta askotan, linguistikako problema bat ulertuta gero, biharamunean\* azaltzen euskun zelan esaten zan errian. Nik uste, Joxe Mari gure lagunak hemendik aurrera jakingura pixka bat sentiduko dau, orainarte baino gehiago ziur.

Bilbaon, itzaldi edo alkarrizketa bat euki eban Doneux Jaunak Oñati ikastetxean, batezberere ikastoletako zuzendari ta andereñoentzat. Euskera-irakasle batzuek be etorri ziran, eta —nahizta euskerea ez irakatsi— euskaldun lizenziadu batzuek bere bai.

Argi esan euskun Doneux Jaunak, berbeta modu baten bidez zelan eldu leiteken izkuntzearen sakoneko eukturaraino. Eta hori, gainera, erakutsi egin euskun. Esan daiteke, Ondarroako berbetea beste batzuek baino urrunago joan dala aldaketa edo trasformazioan; eta hori, orainarte egin dogun itaunketan\* ikusten da. Hala ta guzti bere, hango izkuntzea Euskera bera da.

"Medio de comunicación común a los miembros de una misma comunidad lingüística": horixe da izkuntza bat; eta jakina, azalez —dialektuakaitik— desbardina irudi arren, bat bakarra dogu pentsamentuaren barrenean.

Zetan esan be ez, H zorionekoak bere urten eban alkarrizketan. Ondo ikusi genduan, euskeraz H "fonema bat dala, baita Bizkaian bere". Guk bizkaitarrok ez deusagu letra honeri doinurik emoten, osterantzeko letrei emoten deutsegun legez; baina lehen H bat egon dan itzetan, vokalak ia beti dira luzeagoak. Gaur egunean H, zero graduko fonema bat dogu Bizkaian. Fonema honek ez dira entzuten; baina, errealidade bat diran ezkerro, idatzi egin behar dira. Zelan? Edo, latinez bezala\*, arraia bat vokalaren gainean jarriaz; edo vokal bi ipiniaz; edo, beste leku batzuetan egi-tan dan legez, vokal bien artean H bat sartuaz.

Batzarraren bigarren zatian, Karmele Rotaetxek "lingüística aplicada" zer dan azaldu euskun, eta arlo hori zein interesgarria dan, euskerea ezagutzeko, euskerea ikasteko eta euskerea irakasteko. "Ejercicios estructurales" zer diran be azaldu euskun.

Aldizkari honetatik eskerrak emoten deusaguz Jean Doneux Jaunari, euskaldunoi hain mesede andia egin deuskulako.

MENDIÑO ANDEREÑO

## LITERATURA EUSKEREAREN BATASUNARI BURUZ EUSKALTZAINDIAREN AGIRIA

*Arantzazuko bileren\* ostean, han ziran euskaltzainak alkatetik, argibide honek emon zituen.*

Arantzazuko batzarra egin ondoren, Euskaltzaindiak eskerrak agertu nahi deutsez, etorri diran nahiz euren eritxiak bidaldu dituen guztiei.

Lehenik ikusi doguna da, guztion ustez gure izkuntzearen batasuna behar-beharrezkoa dogula. Batasuna, noski\*, ez da Euskaltzaindiak egin daiken gauzea, eta oraindino gutxiago bat-batean egin daikena. Batasun hori, euskera idatziaren batasunaz mintzatu garean ezkerro, euskal idazle ta irakasleen eskuetan dago, Euskaltzaindia gidari eta laguntzaile dabelarik.

Arantzazun izan diran eta ez diran euskaltzaleak argibide bat euki daien, Euskaltzaindiak geroago eta astiroago argitaratuko dituan erabagi eta lanen aurrerapena agertu nahi dau orain.

1. Ortografiaz, horretarako autatu\* zan batzordeak\* adierazo dituan puntu gehienak onartuak izan dira, ikusi dogunez.

2. H-ren auzia, izan diran eritxiak entzun ondoan, erdibide bat aukeratu\* da, asteko: alegia\*, Euskaltzaindiak begi onez ikusiko leukela, letra hori bi vokal bardin nahiz ezbardinen artean erabilten astea.

Honek ez dau esan nahi, gorago jo gura dabenen saioak ez dirala ondo ikusiak izango.

3. Morfologiaz, izenen erabilereaz batzordeak prestatu dauan aitzin-lana puntu nagusietan oinarri bezala artuaz jokatu dau Euskaltzaindiak, aditzaren auzia beste aldi baterako itxiaz.

4. Aztertu dira, orobat\*, batzordeak euskal itz zahar eta barrien formeari buruz gertatu dituan lanak, gero be hori bide beretsutik obeto lantzeko asmoz.

Atsegin artu dau Euskaltzaindiak, alkarrizketa honetan agertu dan giroaz, gendetasunaz eta alkar lanerako gogoaz; eta uste dau, gero bere, guztien laguntzearekin, bere egin-kizuna beteko dauala. Horretan saiatuko dala.

*Euskaltzaindia*



## POETEAREN LURRAK

Apirilaren lehenengo astean, etxetik kanpora jende askok urteten dau lur barriak ikustera paraje diferenteak ezagutzera. Batzuek Pirineoetara, besteak beste lekuren batera, bizitzaren eguneroko bardintasunari horrelakoxe auste bat sortu nahian. Zeru zabalagoen bila, edo kontrastearen sortzea aztertu ta mirestera\*. Begiak dira, ene ustez, sensibildadearen lehenengo leihoak\*. Ikusteak, ezagutzeak eta kontrastatzeak ditu austen adimenaren arresi\* estuak, zabaltzen ulermena eta argitzen izpirituaren\* bide ilunak. Norberaren txokoak bere, gehiago eta era obeagoan maitatzen dira, beste lurralde batzuek ezagutu ondoren. Sekula ezagutzera elduko ez garean gauza asko dagoz mundu honetan; baina gure mugetatik harantzago dagozan izaki umil horreek ezagutzeagaz bere, zerbait irabazten dogulakoan nago.

Euskalerritik aterata\* laster, Nafarroako erribehera zabal eta aberatsak gure lurriari amaiera emoten deutsonetik berehala\*, Gaztelaren goialdeko zabaldegietan Soriako uria dago eta bere probintzia otz eta gogorra. Paraje hareetan bizitzea aspalditik geldirik dagoala esan daiteke, gaurko bizikerearen itxurarik galbar eta motelenak bertan nabarrituko\* ez balira. Joan daneko hainbeste denboran han ez da ezer gertatu\*, okerrera ez bada. Ez aberasterik, ez aurreraterik, ez erabarritzerik. Kanpotik datozen modei loturik, jatorrizko izakerearen eragingarririk bage\*, itxurak bakarrik artu dabe halakoxe gaurkotasunaren traza zabar bat; eta ez askorik, gainera.

Jazoera hori ez da inguru hareetakoa bakarrik; baina inguru hareetan artzen ditu bere sentidurik samingarrienak, ez baitagoz\* akort erak eta giza-errealidadea, jende hareen funtsa\* eta jazten dituen prestatuzko soinekoen kolore bidebakoak.

Mundu latz honetako iraupenaren legea, aurretik ibiltea da. Bizitzeari norberaren ideia, izate eta erak markatzea. Errealidadea ezagutzea, menperatzea, aldatzea eta alkar-bizitza aberatsago batera moldatzea. Bestelako ondoren bakarra, morrontza\* da, era guztietara. Norberaren bide ta aurrerapenetaz jabetzeak bakarrik askatu leike, ekonomian, kulturen eta kontzientziaren maminean, berez pobrea eta behartsua dan lurralde bat.

Baina Sorian prozesinoak ikusi genduzan. Han ez egoan federik, ez erlejino sentidurik; ohitorea bakarrik. Ule luzeak ikusi genduzan, jazkera trebeak; protesta alperrikakoa edo besteen imitazioa. Kafetegiak; burdinazko zibilizazioaren eliza barriak. Eta kaleetan, etxe zahar erdi jausiak; sitsak jandako jauregi lizunduak; zikinkeriaz inguratutako etxola eskasak; oraindino sotanarik erantzi ez daben abade mor-doa, eta abar. Ez ostera fabrikarik, ez sortzetasunaren arrastorik, ezta itxurazko erosotasunik\* bere.

Soriako gauetan ilargia oraindino han goian dagoan laranja urdin bat da, poetena edo, antza, amerikanoena. Baina bizitzea, besteen eskuetatik prestatuz arturiko zerbait.

Han, ezin bestean, Machado poeteaz gomutatu nintzan. Machadok berak sekula desiratuko\* ez abana gertatu\* jatan: dan dana berak itxi eban legetxe aurkitu neban. Urrutian, Moncayo mendiaren lepoa, apirileko edurrez jantzia. Zabaldegi otzak, mendi konkorrerpin eta lehorrak, eremu latzak, nekazari ilun eta bizartsuak, narruz estalduriko artzain kizkurtuak. Malkorrak non nahi; eta azkenik, Duero isilaren ur geldi geldiak, zumardien ispilu, urrutiko itsasoaren bila.

Guzurra dirudi, baina uriak eta lurralde batzuek gehiago bizi dira poetearen eskutik euren kabuz baino. Sorian, Machado toki guztietan aurkitu neban. Aizearen garbitasun otzean, ilunabarren gorritasunean, jendeen bakartade etsiperatuan\* eta, batez bere, gorputzeko eta izpirituko\* pobrezia aundi haretan.

Han nonbait, Machado "ofizialki" ezarri daben tokiren batean, honako berba honeek irakurri nituan: "Oker bat izango litzake, Antonio Machadoren izena dibisinoaren ikurrin bezala\* artzea; gure ustez, bere sufrimentua eta kantua sortu zituen ezinezko itxaropen hareek errealidade bihurtu baitira\* gaurko egunetan".

Baina nik, etxeratzekoan, ezetz pentsatu neban: Machadoren itzak oraindino oihu garratz izaten jarraitzen dabela han, berak hainbeste maite izan eban Soria haretan.

Xabier Lete

## EUSKALTZAINDIAREN AGIRIA DALA TA

Horra hor Euskaltzaindiak Arantzazuko batzarrean jaso eban agiria. Han, batzarkide guztiak txalo beroakaz pozik artu ebena. Barriro irakurri eta goitik behera aztertu ondoren, mila pentsamentu datoz gure burura. Zein doa, agiriak esaten dituan gauzak beteaz? Zein da, oraindino Haren kontra jarduten dauan lotsabagea? Agiria bera be, era horretan idatzia agertu zan. Baina euskaltzainak eurak be, betetzen ote\* dabe? Eta eurak bete ezik, zeini emon kontsejuak?

Batasuneko bidea hori bada, eta Arantzazun holan esan zan, hori betetzen ez daben guztiak dira batasunaren kontrakoak. Euskal idazle bakoitzak bere kontzientzia garbi ipini daiala; eta Euskaltzaindiko askok zuzen betetzen ez badabe be, berak bete daiala, Arantzazuko batzarraren ostean gutxi

batzuek egin daben azpijana gora-behera. Benetako euskaltzalea ez dadila izan traidore.

ANAITASUNA-k behintzat, Bizkaiko aldizkaria izanarren, Bizkai aldeko batasuna egin gura dau, Euskalerriko batasunari begira, astiro astiro, euskereak iraungo badau, guztiok beteko dogun euskera batua lortu daigun. Behin emondako berbea jaterik nahi ez dogulako, eta Euskalerriren geroak arduratzen gaitualako. Horrexegaitik ipini doguz, "ANAITASUNA aldizkarirako bizkaierazko batasuna" egiteko oinarriak.

Azkenez, esan behar dogu, guk be, Arantzazun Euskaltzaindiak ontzat artutako normak geure egin nahi doguzala, bertako askoren exemplo txarra gora-behera.

Zuzendaritza

# Arintza kontuak

Irailaren\* azkenean, Estaduko Bolelin Ofizialean eta periodikuetan, dei bat agertu da, Amerikako petrolio alkarte batek Gipuzkoa ta Bizkaiko uretan, 12 milako une barruan, petrolio bilaketak egiteko baimena eskatu dauala.

Berehalaxe\* mugidu\* dira arrantzaleen Kofradiak, protesta eginaz, bilaketa horreek arrantzeari kalte egingo ote\* deutsoen bildurraren. Eta ba dauke arrantzaleak bildur izateko arrazoiak, euren bizimodua jokoan dago ta. Gainera, ez da hau gure kostako arrantzaleen lehenengo kezkea, sentidu honetan. Igaz, Iberduero konpainiak bere proiektua agertu eban, Armintza aldean zentral atomiku bat jasoteko.

Arrantzaleak euren interesak zainduten dabez; baina gero ta gehiago, interes horreek ez dira arrantzaleen bakarrik, gizadi\* osoarenak baino.

Ikusi zegaitik.

## Gizona, itsasoen zikintzaile

Beti uste izan da, itsasoa zikin-keria guztiak artzeko leku egokia dala. Itsasora doaz, ibai eta erreka bidez, lehorreko lohikeria guztiak: naturalak eta gizonak eginak. Zenbat eta zenbat lohi artu ote\* dituan itsasoak bere barruan, mundua mundu danetik! Eta itsasoa beti garbi. Benetan miragarria da itsasoak daukan indarra, lohikeria guzti horreek urtu ta ezerezteko. Itsasoaren indar horrerik eskerrak, ekilibrio edo hainbatasun bat dago izadian\*.

Baina gaur, jakintsuak dinoenez, ekilibrio hori austeko zorian dago, eta gizona izango da errudun.

Industria ugaritzeagaz, hainbat eta ugariagoak dira itsasoak bere barruan artzen dituan gauza apartekoak, gizonak eginak.

Ezin doguz hemen gauza guzti horreek aipatu\*, hain dira asko gaur egunean itsasora doazan sustantzia kimikuek eta industri ondakinak. Nagusienak bakarrik aipatuko doguz.

Esate baterao, zelulosa, petrolio, mamarro-iltzaleak (pestizidak) eta garbikariak (detergenteak): honelako ondakinak dira itsasoetako zikin-tzailerik txarrenetarikoak.

Hemendik aparte, radiaktivu industriaren jaurtikinak be ez dira malak.

Ba dagoz baita beste era askotako sustantziak bere; eta honeen artean, gasolinazko motorrak botatzen da-

ben ikatz bioxidoa eta beruna aipatu\* behar doguz. (Honeek aidean euriagaz urtuten dira, eta erreketatik itsasora doaz).



## Zikintzearen arriskuak

Gauza guzti honeek salatuten dabilzan jakintsuak, izen barria artu dabe: ekologuak. Ekologuak ez dabilzt sentimentuzko konsiderazinoakaitik, gizonaren bildurbako interbentzino honek ekarri leikezan ondorio\* garratzak galerazoteko baino.

Goraka ta goraka doa itsasoetan, garbikari sintetikuen konzentrazinoak. Bardin esan geinke mamarro-iltzale edo pestizidakaitik. Sustantzia honek aldatugatik dira: ez dira eze-reztuten erraz\*, eta itsasoko animalien aragira pasatzen dira geldika geldika. Antartikuko pingüinoen koipean bere, DDT-ren azterrenak\* aurkitu dira.

Honek esan gura dau, martxa honetan segitzen badogu, urte batzuen barruan, itsasoetako janari guztiak kontaminatuak izango dirala, eta azkenean... geu bere bai.

Sustantzia radiaktibuek dabilztan industriak beste arazo bat daukarre. Industria honeen ondakinak arrisku andikoak dira, eta derrigorrez lehenbailehen kendu behar dira bistatik. Itsasoa euki da orainarte, honetarako be, tokirik egokientzat. Baliobako ondakin guztiak itsasoetako zulo andietara jaurtigi\* ezkeru, dana eginda egoala uste izan da. Baina egin diran estudio barriak ez dabe horrenbeste baieztuten.

Beste aldetik, ez dago oraindino argi, itsasoko janariak kontaminatzeko mekanismua zein dan, eta zelan eltzen dan, katez kate, kutsapen\* hori gizonaganaino.

"Gaurko gizon teknologikuak —dino Washingtoneko Uriversidadeko Barry Commoner jakintsuak— estronizio 90 daroa bere azurretan, iodine 131 bere tiroidean, DDT bere koipean eta asbestoak bere biriketean. Gaur ez daukagu munduan aize, ur eta lur nahikorik, gizonak eginko edenak\* efektu barik artzeko. Errukibako bide horretan jarraitu-

## "LE REVEIL

## DE LA FRANCE"

Jean Jacques Servan Scheiber

Urte erdi dator, Frantzia ikasle ta langileen oporketea izan zanetik. Guretzat, asko igarri barik igaro zan une larri ta interesgarri hori. Gure egunerokoetan irakurri genduzan lau gauzagaz gelditu ginan, jazoera horren zera ta norakoa neurtu barrik.

"El Desafio Americano" idatzi eban Servan Scheiber-ek, goian izendatzen dogun liburu horretan dakar jazoera horren interpretazinoak. Nire ustez, interpretazino sakona eta egoki eginga. Labur labur esateko, Servan-en eritxiz, Europak historiaren timoia galdu egin dau. Amerika ta Rusiaren kulturak nagusitu dira; eta europatarrok, ekonomian morroi bihurtzen garean neurrian goaz geure kultura askatasuna galtzen be.

Erri bakoitzak ba ditu bere izkuntzea, bere kulturea, bere gogo ta dinamika berezia. Baina gertatu leiteke —eta horixe jazo da Europako nazioetan, estatu izatera eldu ez diranetan be bai— kultura berezi horrek bere indarra galtzea, lehenean finkatu dalako. Horixe jazoten ei da Frantzia bere: agintariak erria lehenean lokartzen ahalegirtzen dira; eta bien bitartean, erria gaurko estatu ahaltzuen morroi bihurtu da.

Igazko maiatzean Frantzia jazo zana, gaztediaren erantzuna da. Servan-ek, "renacimiento" garaiagaz konparatzen dau gaurko egoera. Europa guztian nabaritzen\* dan zalaparta da.

Gizonak ez dabe nahi, ametsetan\* bizi izanik, morroi itzartu. Gaurko "teknika zibilizazino" honetan, itxaropen bizigarria da gaztediaren nahia. Historia, aurrera doa; baina, aldi bakoitzari erantzunez, gaztediak eginda.

Idea baliotsu asko dira liburutxo honetan, esandakoetatik aparte be. Erderaz: "El despertar de Francia", Plaza Janes. Barcelona.

Angel Ugarteburu

ten badogu, denbora gutxi barru planeta hau ez da gizonaren bizitzarako leku egokia izango.

Itsasoa gizadiaren janaritegia dala esan ohi badogu, ezin geinkez bertara jaurtigi\* lehen aipatu doguzan zikin-keria guztiok. Eta gaur zema\* bi datorkiguz gure itsasora: petrolio eta radioaktivutasuna. Arrantzaleak ezezik, danok bere zer edo zer galduko dogu.

Artza



# AMESLARIAK

Argitaratu diran euskaldun disko barrien artean, hauxe da, duda barik, onenatarikoa.

Lau kanta daukaz, eta Euskalerrri osoan dago salgai. Bere prezloa: 115,— peseta.

Abestien itzak, honeexek dira:

## ARREN, JAUNA

Arren, Jauna, arren,  
barka\* naizu;  
berdinbako  
maite batek  
zenbat du pekatu!  
Zorion haundia  
eman didan  
maitea,  
bihotza menpean  
hartu didan  
maitea  
barka\*, Jauna!

## BERRIRO HASI

Nere maite nigan urruti,  
zer dala ta nik al dakit?  
Atoz bai berriz nigana,  
baita ni ere zugana.  
Gure artean dena  
berriz piztuko da.  
Barrendikan negar dagit,  
sufri zer dan ondo dakit.

## BABY NEREA

Nor zinan jakin ez,  
ta nik maitatu!  
Maite zindudan, eta gaur  
ezin ahaztu!  
Bost axola zait neri  
nongo nor zaitezken zu;  
ikusi hutsarekin  
zaitut maitatu.  
Izan zaite betiko nerea.  
Maite zaitut, maite,  
baby nerea.  
Argia pizten da, ta  
gero itzaldu,  
maitemin hau betiko  
da behin azaldu.  
Munduan zerk ni bete,  
nerekin ez bazaude?  
Nitzat ez bazinade,  
hilko nintzake!

Laguntzaileak: *NAIA orkestea.*  
Manolo Urbietta: *organu elektronikua.*  
Rober Alvarez: *lehenengo kitarrea.*  
Isidoro Alfaro: *bigarren kitarrea.*  
Juan Francisco Sánchez: *bateria.*

## BIHOTZ, ARIMA, BIZITZA

Berriro piztu da  
nere bihotzean  
zure edertasuna  
ezagutu nuan  
arratsaldea.  
Maitemindurikan  
uzten ninduzula,  
zure begi hoiekin  
ezpain\* gorrituak,  
ahaztu ezinak.  
Entzun abesti polit hau,  
bihotz, arima, bizitza,  
zuretzat hirurak hartuitzazula.  
Behartsu jaio naizela,  
hiru gauzatxo bakarrik,  
bihotz, arima, bizitza, zuretzat.  
Bihotza, zu maitatzeko,  
arima, irabazteko,  
bizitza, alkarrekin izateko.

«AMESLARIAK» euskal abeslari taldea Bergaran sortu zan 1967-garren urtean; eta orainarte, 100 bider baino gehiagotan abestu dabe errietako jaietan, dantza tokietan eta antzerki saletan.

Talde honetan abestuten daben bostak, honeexek dira: José Luis Mendía, Ramón Arbizu, Justo Idígoras, Javier Arbizu ta Iñaki Arriarán. Disko honetan, eurei laguntzen, Zarauzko «NAIA» orkestea.

Hemen daukazuez, ba, lau abesti polit, ondo abestuak.

Eurekin itz egiteko, hona hemen zuzenbide bat: Ramón Arbizu - Iparragirre, 17

VILLARREAL DE URRECHUA (Guipúzcoa) - Telf. 87 12 12



Egilea: **CINSA.** Av. Ejercito, 18 3.º B





**Arrazoi askogaitik, zuk gure adiskide egin behar dozu**

**Zure dirua, arrisku barik ta irabazirik onenean  
gure erriko enpresarik onenetan ipini ta  
zaindua izango da.**



eurovalor le ofrece:  
**SEGURIDAD-RENTABILIDAD-REVALORIZACION-LIQUIDEZ-EXENCIONES FISCALES**

**eurovalor**

Fondo de Inversión Mobiliaria



defiende  
su dinero  
y lo hace crecer

**Sociedad Gestora: SOGEVAL**  
**BANCO DEPOSITARIO:**  
**BANCO POPULAR ESPAÑOL**

Argitasun gehiagorako, eskribidu:  
**EUROVALOR - Gran Via, 17, 4.º - BILBAO**

Edota telefonoz deltu: 23 18 73

D. ....  
con domicilio en .....  
Ciudad .....  
Teléfono .....  
desea recibir, sin compromiso alguno,  
información sobre EUROVALOR. **3**

## I. BERBAK

(Ale honetan izartxu batez agertzen diranak)

### Bizkaierazkoak

ARAN, ibar, valle.  
 ARRESI, límite, barrera (arri esl).  
 AUKERATU, elejido, hautatu.  
 AZTERREN, arrasto.  
 BAGE, бага, barik.  
 BATZORDE, komisino. (Berba barria).  
 BERARIZKO, berezi, aparteko, especial, característico.  
 BIZIEN, cáncer.  
 BURPILADA, proyección.  
 EDEN, veneno.  
 ERKIDE, errikide, conciudadano. (Berba barria).  
 EROSOTASUN, bereratasun, comodidad.  
 GIZADI, humanidade. (Berba barria).  
 GIZARTE, soziedade. (Berba barria).  
 INAUSI, poder.  
 IRAIL, septiembre.  
 ITAUNDU, galdetu, preguntatu.  
 ITAUNKETA, inkesta, encuesta.  
 IZADI, krezino. (Berba barria).  
 JARITXI, lortu, eskuratu.  
 JAUREGI, palazio.  
 JAURTIGI, jaurti, jaurtiki.  
 JAZO, gertatu, pasatu, suceder.  
 KONDAIRA, historia.  
 MEATOKI, mineral toki.  
 MORRONTZA, morroi izate, esklabu izate, servidumbre.  
 MUGIDU, mobidu.  
 OLA, fabrika.  
 ONURA, probetxu.  
 OSTERA, barriz.  
 SINESTU, sinistu.  
 UDALETXE, aluntamiento etxe.  
 UKAMEN, renuncia.  
 ZEMAI, amenazu.

### Euskera Bateratukoak

AHURPEGI, arpegi.  
 AIPATU, aiatu.  
 AITORTU, autortu.  
 ALEGIA, hau da, a saber.  
 AMETS, ames.  
 ANGELU, frantsesez Anglet.  
 ARI IZAN, jardun.  
 ATERA, urten, atara.  
 BAITA, bait da, da ta.  
 BAITAGOZ, bait dagoz, dagoz eta.  
 BAITIRA, bait dira, dira ta.  
 BAITZIRAN, bait ziran, ziran eta.  
 BARKATU, parkatu.

## II. IDAZTEKO MODUA

**TXARTO:**  
 Protesta gogor bat egin zait, erri horretan askatasunik ez egoalako, eta gizonaren eskubideak ez ziralako onartzen eta errespetatzen.  
 Euskalerrri osoa pinuz bete dogu, ikusirik arbola aberatsa dala.  
 «Ameslariak» euskal abeslari taldea sortu zan Bergaran.  
 Umeak egingo badabe gure geroa, zegaitik ez guk gurasook eurakan enpeinu gehiago ipini?  
 Igaz lberduero konpainiak agertu eban bere proiektua Armintza aldean atomiku zentral bat jasoteko.  
 Itsasoko zulo aundietara (jaurtigi ezkerreko ballobako ondakin guztiak, eginda egoala dana uste izan da.  
 Badagoz, baita be, beste era askotako sustantziak.  
 Sustantzia radiaktibak dabilzan industriak dakarre beste arazo bat.  
 Baina gure alperkeriak euskeraz idazten eta irakurten ikasteko ez dauka izenik.  
 Geldi geldiro, baina uste dot aurrera goazala arlo honetan.  
 Baita be dei egiten deusagu Euskaltzaindiari.

BERAZ, hori dala ta, horregaitik, por consiguiente.  
 BEREHALA, behingoan, en seguida.  
 BEZALA, legez, lez.  
 BIHARAMUN, biharamon.  
 BILDU, batu.  
 DATZA, (etzanda) dago.  
 DESIRATU, desiatu.  
 ERRAZ, errez.  
 ESKAINI, eskeini, eskini.  
 EZPAIN, ezpan.  
 FUNTS, barru.  
 GARAZTAR, Donibane Garazikoa. (Donibane Garazi, frantsesez: Saint-Jean-Pied-de-Port).  
 GISA, legez, lez, a modo de.  
 HAUTATU, aukeratu, elejido.  
 HAZPANDAR, Hazparnekoa. (Hazparne, frantsesez: Hasparren).  
 HEZI, edukatu.  
 IZPIRITU, espiritu.  
 JAITSI, jatsi, bajatu.  
 KUTSU, tensión.  
 LANDARE, landara.  
 LARZABALE, Baxenabarreko erria. Frantsesez: Larceveau.  
 LEIHO, lejo, bentana.  
 MENDE, gizaldi, sekulu.  
 MOTA, muela, klase.  
 MUGIMENTSU, mobimentsu.  
 NABARITU, sentidu, percibir.  
 OHAR, advertencia.  
 OTE, etc.  
 TAXUTU, taiutu, moldatu.  
 ZAIL, gatx.  
 ZENTZU, zentzun.

### Beste Euskalkletakoak

APAR, espuma.  
 BEREIZI, banatu, separatu.  
 BILDUMA, kolezino, recopilación.  
 BILERA, batzar, reunión.  
 EGITARAU, programa.  
 ENPARANTZA, plaza.  
 ERABAT, zeharo, del todo, completamente.  
 ESKUALDE, comarca.  
 ETSIPERATU, resignado.  
 GERTATU, jazo, pasatu, suceder.  
 JADANIK, erderazko ya.  
 KAZETARI, periodista.  
 KUTSAPEN, contagio.  
 MEATZE, meatoki, mineral toki.  
 MIRETSI, admirar.  
 NAGUSIGO, mando, poder.  
 NOSKI, ciertamente.  
 ONDORIO, ondore, oste.  
 OROBAT, bardin.

# ONGARRI Pentzua k

## SARB-en ardurapean eratuak

Pentzatu ondo ta pentsutu ondo zure ganadua  
 Burubako egina, alperreko ekina.  
 ONGARRI-k, barriz, buruz egiten ditu pentsuak.  
 ONGARRI pentsuak ezagutzen ez badozuz, probatu eizuz.

**Eskatu gure banatzaileari edo zuzenbide hontara:**

# ONGARRI, S. A.

## piensos compuestos

Agazti, txarri, koneju, txal gazte, esne-bei, aragitako txal...  
 danentzako pentsuak, bakoitzari dagokiozanak. Baita txal txikienezako ALIVO esne autsa be...

**ANAITASUNA-** amabosteroKoa, 4  
 Euskalerrriko Anaia Txikarrak argitaratua, Durangon.  
 Zuzendaria: Angel Celayeta Guisasaola.  
 Idazkolaria ta Banakolaria: Bengoetxe 33-B Galdakano Tel. 386 eta 397

Banakakoa, 4 peseta, Urtekoa 100 XVII gn. urtea. 175 zanb.  
 1.969 urriak 30  
**D. L. BI. 1.753-1.967.**  
**IMPRESA IDEAL-ek Irarria, GALDAKANON, Bengoetxe 70**

# I. Somorrostroko Zazpi Kontzejuak

Bilbo Aundia, 1947-ko maiatzaren 23-ko dekretu baten bidez sortu zan. Mundu guztian diran "Eskualde\* metropolitano" askoren antzekoa da: Londres Aundia, Paris Aundia, Berlin Aundia, Mosku Aundia, Barcelona Aundia, Madrile Aundia, Valencia Aundia, ta abar. Uribe ta Enkartzinoei kendutako erriekin sortua.

Lau eskualde\* txiki ikusten ditugu bertan: Somorrostro, Urbi ingurukoa, Txorierrri ta Bilbo bera. Orain, Somorrostro azalduko dogu.

— o —

Somorrostroko arana\*, zazpi kontzejutan banatuta egoan: Muskiz, Abanto-goikoa, Abanto-behekoa, Zierbana, Santurtze, Trapaga eta Sestao. Bere barrutian uri bat: Portugalete. Amabosgarren menderarte\* Barakaldo bere bai; ta erri hau, joan dan mendean barriro lotu zan lehen-goekin. Lehenengo laurak, "Cuatro Concejos de Somorrostro" izeneko batasuna osotzen eben; beste irurak, "Tres Concejos de Somorrostro". Danak, Barakaldo ta Portugalete kontatuta, Bilbo Aundia sortu zanean, Balmaseda buru zan eskualdetik\* (Enkartazinoetatik), eskualde barri haretara pasatu ziran, orain 22 urte.

Orain bere, zazpi kontzeju doguz, ze Abanto biak eta Zierbanak kontzeju bat osotzen badabe, bestetik kontzeju bi gehitu edo sortu dira: Barakaldo ta Ortuella. Barriro bere, Somorrostroko zazpi kontzejuekin gagoz, uriagaz gainera.

Euskalerrriko eskualderik inportanteena hauxe, bai ekonomiaz ta bai bizilagunez. 127,17 km<sup>2</sup>. ta 238.755 bizilagun, orain lau urteko kontaketan.

Ptolomeo, Dion Casio, Pomponio Mela, Pliniok eta beste antzinako geografuak izendatzen dabe eskualde hau, bere burdinazko mendia aipatuaz. 807 gn. urtean, Wamba-ren erregetzan agertzen da Somorrostro izena. Mundu guztian entzutetsuak izan dira Bizkaiko burdin-meatokiak\*; ta hain zuzen bere, Somorrostroko zazpi kontzejuetan dagoz. Lehen, erriarenak ziran danak, Euskalerrriko industrializatzea hementxe asi zan, eta eskualde honeri zor jako gehienbat. Orain bere, bertan dagoz Bizkaiko olarik\* gehienak. Burdinaz aberatsa izan bada, laster petrolio refinariagaz aberastanaz ikaragarria artuko dau. Erriz erri ezagutzea merezi dauan eskualdea da.

## Muskiz

21,50 km<sup>2</sup>. ta 4.914 bizilagun. Orain Musques izenagaz ezagutzen dana. Bere auzoak: Somorrostroko San Juan (erriburua), Muskizko San Julian, Larrigada ta Pobeña; laurak, parrokiak. Bere barrutian dagoz Muñatonizko gaztelu zaharra, Salazarko Lope Gartzearena ta jauregi\* barria, orain hostal bihurtua. Muskizko San Julian auzoan joango da lehen aipatu dogun petrolio refinaria, gaurko ekonomia-erentzako hain balio aundikoa. Arriskua egon da, Euskalerritik kanpora joango ote\* zan refinaria hau, baina azkenean erri honetan gelditu da.

## Abanto ta Zierbana

26,10 km<sup>2</sup>. ta 9.863 bizilagun. Bere auzoak: Abanto-goikoa (Santa Juliana), Abanto-behekoa (San Pedro), Gallarta (orainarte erriburua), Putxeta, Kotorrio, Las Carreras eta Sanfuentes. Burdin-meatzetan\* aberatsena —1913-an, 45 meatoki zituan—, Gallarta, hain ezaguna meangile burruketan, orain beste toki batera aldatuko dabe, auzoaren azpian burdina asko dagoalako. Elizea ta Udaletxea\* beste leku baten barriak eginda dagoz. 5.000 bizilagun ditu Gallartak, eta danak alde egin beharko dabe. Orain daukazan baino etxe obeak egingo al dabez! Zierbanako portutxoan, arrantzaleak bizi dira; ta estropadetan lehen entzunak baziran, orain indar barriekin asi dira arraunlari. Kearen baltza deritxon zera egiteko, Europako olarik\* aundienetarikoa irigi barria da bertan.

## Santurtze

6,77 km<sup>2</sup>. ta 37.375 bizilagun. Bilboko portuaren alderik nagusiena. Bizilagunez gorakada aundienetarikoa egin dau. Orain ehun urte, 1.622 bizilagun zituan. Iberdueroren zentral termikua ta CAMPSA-ren gasolina ta gasoil askak bertan dagoz. Auzo bi ditu, erriburuaz gainera: Balparda ta El Villar.

## Ortuella

7,65 km<sup>2</sup>. ta 7.431 bizilagun. Burdin-meatze\* erria hau bere. Orain berrogetamar urterarte, Santurtzeren auzo bat izana. Askatasuna lortu eban, baina ofizialki Santurtze-Ortuella izena errotekotan. Bere auzoak, erriburuaz gainera: Orkonera, Triano, Urioste, Intxausti (Nocedal), Granada, Kadegala ta Gollibar (orain Golifar). Zortzi meatoki\* dagoz, eta erriaren ekonomia osorik dago eurei lotuta.

## Sestao

3,10 km<sup>2</sup>. ta 29.590 bizilagun. 1877-an, 341 bizi ziran. Beraz\*, gehien asi dan erria. Ez dago baserririk ez auzorik, dana da bizilekua edo lantegia. Bertako gehienak Bizkaiko Laba Aundietan lan egiten dabe, ta baita bere barrutian dagozan Babcock Wilcox, Constructora Naval eta beste ola aundietan bere. Fabrika honeek gutxiren eskuetan, langile arazo ta burruka aundiak izan dituan erria da Sestao.

## Trapaga

13,06 km<sup>2</sup>. ta 10.246 bizilagun. Bere auzoak: Arboleda, Durañona, Elgero, Galindo, Parkotxa, Larraineta (La Reínetta), Matamoros, Saltzedillo ta Ugarte. Amazortzigarren mendean\*, erri hau "San Salvador del Valle de Trápaga" izenagaz agertzen da. Gero batzuetan "San Salvador del Valle", beste batzuetan "Valle de Trápaga" deituten jako; ofizialki lehenengo izenagaz gelditu da zoritxarrez, nahiz eta bertako erriarrak "Valle" bakarrik esan. Udaletxetik\* 800 metrora etxe modoxkatxo bat dago, Trapaga izeneko gaur bertan. Beharrezkoa litzake, bertakoak izen hori barriro aurrera ateratzea. Erri hau bere, burdin-meatokia da, batez bere Orkonera, Larraineta ta Arboleda auzoetan.

## Barakaldo

45,29 km<sup>2</sup>. ta 103.850 bizilagun. Euskalerrriko erririk aundienetarikoa bizilagunez, eta aundiena industriad. Bere auzoak: Alonsotegi, lehen Aintamentua izana, Irauregi, Mendierreka (El Regato), Beurko, Burtzeña, Kurutzeta, Erretortu, Landaburu ta Lutxana. "Altos Hornos" da bere olarik\* aundiena, ta beronen inguru ta menpean dagoz besteak. Diru galtzai aundiak egin ondoren, Amerikanen eskuetara jausi dira Laba Aundi honeek. Kanpotik etorritako jendetza ikaragarria dago erri honetan. Bai gizarte aldetik, ta bai ekonomia aldetik, estudio sakon baten beharrea aurkitzen da Barakaldo, bere arazo izugarriak azterteko.

## Portugalete

3,10 km<sup>2</sup>. ta 35.386 bizilagun. Bere auzoak, erriburuaz gainera: Kanpazar ta Repelega. Somorrostroko uri bakarra da; ta Morcillok bere zatiketea egin arte, zazpi kontzejuekin batera osotzen zan arziprestazgoaren burua. Industri erri baino, bizitza erri da gehiago. Itsasgizonen erria: bertan dago Itsas Eskolea edo "Escuela de Náutica", Euskalerrian bakarra.

— o —

Amaitzeko, gure izkuntzea, aspaldian galdua, Somorrostroko kontzejuetan berbizten asi dala esan geinke. Ia laurhun umek euskeraz ikasten diardue; baita nagusi talde batzuek be, gau eskoletan. Pozgarria, abiada hau. Orainarte, eskualde hau euskal ekintzaile askoren sorlekua izan da, eta bere kontzejuetan dantza taldeak ugari zabaldu dira. Orain, gure izkuntzeagaz jabetzen bada, Euskalerrriko eskualde nagusien honek bere aberastasunik oberena lortuko dau.

J. L. Lizundia